



PARTE-HARTZE OINARRIAK: MAIATZAKO ZOZKETA

“BERTAKO MERKATARITZA, LAGUN MERKATARITZA”

2 LAGUNENTZAKO BIDAIA ETA 2 LAGUNENTZAKO 5 AFARI

1.- ANTOLATZAILEA ETA ZOZKETAREN XEDEA

ZAHARREAN eta CENTRO ERDI elkarteek edozein kontsumitzaile potentzialari zuzendutako zozketa antolatuko dute, zozketaren izena (aurrerantzean ZOZKETA) **“Bertako Merkataritza, Lagun Merkataritza”**, izango da eta bere helburua, promozio honetara atxikitu diren Donostiako Erdiguneko eta Alde Zaharreko komertzioen artean kontsumoa sustatzea izango da.

2.- PROMOZIOA MARTXAN EGONGO DEN EREMUA

ZOZKETA, Donostian burutuko da, Zaharrean eta Centro Erdi elkartei atxikituta dauden komertzioetan kontsumitzen duten guztien artean, hain zuzen ere.

3.- EPEMUGA

ZOZKETAn parte hartzeko epea, **2019ko maiatzaren 13ko 00:00etan hasi eta 2019ko maiatzaren 30eko 20:00etan bukatuko da**, bi egunak barne.

4.- ZOZKETAREN JAKINARAZPENA

ZOZKETA martxan dagoen bitartean, Zaharrean eta Centro Erdi Elkarten sare sozialen eta www.zaharrean.net, webgunearen bitartez hedatu eta jakinaraziko da.



5.- ZEINEK PARTE HARTU DEZAKE ETA ZOZKETAREN FUNTZIONAMENDUA

- Merkatarien 2. maila arteko ahaideek ezin izango dute zozketan parte hartu.
- **DERRIGORREZKOA:** erosketa egin dela **EGIAZTATU** beharko da (saria jasotzerako orduan tiketa aurkeztu beharko da).

6.- SARIAK

Honako sariak izango dira:

- Lehenengo saria: **BI lagunentzako bidai bat**. **BALDINTZAK:**
 - Lekua irabazleak hautatzeko aukera izango du (Beti ere, “Viajes Arán” Bidaia-agentziaren baldintzei lotuta).
 - Bidaiaren iraupena: 8 egun.
 - Saria, Donostiako Elcano 1, kalean dagoen “Viajes Arán” bidai-agentzian jasoko da, irabazi dela jakinarazten denetik HILABETEKO epean. Beti ere, epemuga 2019 ekainaren 30 izanik.
 - Iraungitzea: urtebetekoa izango da (365 egun). Hau da, 2019ko maiatzaren 31tik 2020ko maiatzaren 31 arte.
- Bigarren mailako sariak: **BI lagunentzako 5 afari**. **BALDINTZAK:**
 - Atxikitutako ostalaritza establezimenduen artean aukeratu ahal izango da. (Establezimendu hauen baldintzetara lotuta).
 - Saria, Donostiako Soraluze 3 kalean dagoen Zaharrear Elkarteko egoitzan jasoko da; saria jakinarazi denetik HILABETEKO epean. Beti ere epemuga 2019ko ekainaren 30a izango delarik.
 - Iraungitzea: urtebetekoa izango da (365 egun). Hau da, 2019ko maiatzaren 31tik 2020ko maiatzaren 31 arte.



7.- SARIDUNARI JAKINARAZPENA

Behin, 2019ko maiatzaren 31ean, ostirala, zozketa burutzen denean, saria Maria Cristina Hoteletik (República Argentina kalea, 4. Donostia) zuzenean jakinaraziko da, IV Odol Emaileen Maratoiarekin batera eta Zaharreen eta Centro Erdiko sare sozialen eta www.zaharreen.net bidez ere hedatuko da.

8.- ERRESERBA-ESKUBIDEA ETA MUGAK

Zaharreen eta Centro Erdi Elkarateek, bidezko kausa dagoenean edo oinarriak ezinbestean behar bezala aurrera eramatea ezinezkoa denean, zozketaren funtzionamendu egokian eragin dezaketen aldaketak egiteko erreserba-eskubidea izango dute.

9. -OINARRIEN ONARPENA

ZOZKETAN parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla suposatuko du. Oinarriak ez onartzeak ZOZKEKATik kanporatzea ekarriko du.

10. –DATU PERTSONALEN TRATAERA

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa ezarritakoaren arabera, honako jakinarazpena eman behar dizugu: zure datuak era automatizatuan tratatuko ditugu eta fitxategi baten barruan egongo dira, dagokien babesa jasoz. Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzko Legeak(LSSI) ezarritakoa betez, zure datuak biltzen direnean zure berariazko onarpena eskatuko dizugu, Zaharreen Elkarateak eta Centro Erdik datu horiek posta elektronikoko edo SMSren bidez informazioa eta publizitatea bidaltzeko erabili ahal dezaten. Datu hauek konfidentziasun osoz tratatuko dira, indarrean dagoen legeriaren arabera.